



2022UDOS0008

Andoaino Udala

**Akta:Osoko Udalbatza**  
 APARTEKO BILKURA: 2022/07/12

**Acta: Pleno Municipal**  
 SESIÓN EXTRAORDINARIA: 12/07/2022

**Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos**

**Bildutakoak: / Asistentes:**

**Alkatea / La Alcaldesa** Maider Lainez Lazcoz

**Zinegotziak: / Concejales/as:**

|                           |  |
|---------------------------|--|
| <b>EH-Bildu</b>           | Andoni Alvarez Lete<br>Estibalitz Mujika Tolaretxipi<br>Jon Zulueta Berastegi<br>Garazi Usandizaga Zubiria<br>Julian López Aracama<br>M <sup>a</sup> Teresa Etxeberria Arteun<br>Xabier Fondón Pajares |
| <b>PSE-EE</b>             | José Luis Verdasco Gutierrez<br>Ascensión Parrón Peguero<br>Petra Romero Pozo  |
| <b>EAJ-PNV</b>            | Maria Jose Izagirre Iturzaeta<br>Alexander Huitzi Alfonso<br>M <sup>a</sup> Sagrario Ruiz Fernández  |
| <b>Elkarrekin Podemos</b> | M <sup>a</sup> Teresa Santana Rubio  |

|               |                   |
|---------------|-------------------|
| Akta Zenbakia | <b>00000008</b>   |
| Eguna         | <b>2022/07/12</b> |
| Hasiera       | <b>13:30</b>      |
| Amaiera       | <b>14.13</b>      |

**Idazkaria:**

Unai Rekondo Perez

**Kontuhartzailea**

Myriam Lizaso  
Arruabarrena

**Interpretaria**

Jon Unanue Lopez

**Ez dira bertaratu eta adierazi dute: / No asisten y se excusan:**

Oscar Mendo González - PSE-EE  
 Imanol Goenaga Egibar.....EAJ/PNV

**Gai Zerrenda:**

1. Etxeberrieta, Ama Kandida eta Agirialai eremuetan babes sozialeko etxebizitzak sustatzeko Eusko Jaurlaritzak eta Andoaino Udalak sinatu beharreko lankidetzeta-hitzarmena hasierako izaeraz onartzeko proposamena.

**Orden del Día:**

1. Propuesta de aprobación, con carácter inicial, del Convenio de Colaboración a suscribir entre el Gobierno Vasco y el Ayuntamiento de Andoain para la promoción de vivienda de protección social en los ámbitos de Etxeberrieta, Ama Kandida y Agirialai.

**Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzen da.**

Alkate andreak hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Eguerdion guztioi, ongi etorriak izan zaitezte 2012ko uztailaren 12ko aparteko udalbatzarra honetara.

“Muy buenas tardes a todas y a todos y bienvenidos seais al pleno extraordinario del 12 de julio de 2022.

“Hasi aurretik, aipatzea Oscar Mendo jauna bajan dagoela eta, bere bozka José Luis Verdasco zinegotzi jaunarengan eskuordetu duela eta Imanol Goenaga zinegotzi jaunak bere bozka Izagirre andrea zinegotziarengan eskuordetu du.



Andoaino Udala

## Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2022/07/12

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 12/07/2022

“Decíamos que, tanto el concejal D. Oscar Mendo, sigue de baja y delega su voto en el concejal D. José Luis Verdas y que el concejal D. Imanol Goenaga delega su voto en la concejala Dña. M<sup>a</sup> José Izagirre. “Hau esanda, hasierako emango diogu gaurko ez ohiko udalbatzarrari.”

### **1. Etxeberrieta, Ama Kandida eta Agirialai eremuetan babes sozialeko etxebizitzak sustatzeko Eusko Jaurlaritzak eta Andoaino Udalak sinatu beharreko lankidetzak-hitzarmena hasierako izaeraz onartzeko proposamena.**

2020ko otsailaren 6an, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzako Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzak, Zuzendaritza horretako zerbitzu teknikoek Etxeberrietako eremuan etxebizitza babestuak sustatzeko ondasun higiezinak erostearen bidegarritasunari buruz egindako balorazio-txostena bidali zuen, aztertua izan zedin.

Balorazio-txosten hori udal arkitektoak aztertu zuen eta 2020ko abenduaren 18an eman zuen zegokion txostena.

2021eko uztailaren 8an, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta garraio Sailak Andoaino Hiri-Antolamendurako Plangintza Orokorren Etxeberrieta, Ama Kandida eta Agirialai eremuetan babes sozialeko etxebizitzak sustatzeko Eusko Jaurlaritzak eta Andoaino Udalak sinatu beharreko lankidetzak-hitzarmenaren zirriborro bar aurkeztu zuen.

Ikusirik udal arkitektoak 2020ko abenduaren 18an eta 2021eko urriaren 20an eta hirigintza eta zerbitzuetako administratza orokorreko teknikariak 2021eko abenduaren 3an eta 2022ko ekainaren 13an egindako txostenak.

Ikusirik, era berean, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landaguneko Batzorde Irizpenemaileak 2021eko abenduaren 9an egindako aldeko irizpena.

Verdasco jaunak, Hirigintza, Obrak, Ingurumen eta Landa Guneko Zinegotzi Ahaldunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Eguerdi on, guztioi. El presente convenio recoge los compromisos que asume tanto el ayuntamiento, como el Gobierno Vasco para la regeneración del ámbito de Etxeberrieta. Por parte del ayuntamiento adquiere los compromisos de cesión de los terrenos tanto del ámbito de Etxeberrieta, como la parcela de Belabi, así como, los derechos urbanísticos sobre las parcelas en Ama Kandida y Agirialai para poder llevar a cabo esta remodelación urbanística.

“Además de eso, el ayuntamiento también adquiere el compromiso de realizar un estudio socio-urbanístico para analizar las diferentes casuísticas socio-económicas de los residentes del ámbito y el compromiso de bonificar el 95% del impuesto sobre la futura edificación.

“El Gobierno Vasco, los compromisos que adquiere son: Poner en marcha todos los instrumentos urbanísticos necesarios para el desarrollo del ámbito, que se ejecutaría en dos fases. Una primera fase, donde se construiría un edificio de Belabi, que se destinaría a los residentes del ámbito de Etxeberrieta y, en una segunda fase, se procedería a la demolición de los edificios existentes en Etxeberrieta y a la construcción de 108 viviendas en régimen de alquiler social. Además, el compromiso que adquiere el Gobierno Vasco es también de ejecución de los procesos urbanísticos para desarrollar las parcelas que el ayuntamiento cede, como son las de Agirialai y Ama Kandida y donde también, estarían destinadas a la construcción de viviendas de protección social en régimen de alquiler.

“Básicamente esos son los compromisos que se adquieren por parte de ambas instituciones públicas en este convenio que sometemos a su aprobación inicial.”

Gaia eztabaidara jarri da eta lehenbizi, Alvarez jaunak EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Eguerdi on, guztioi. Gaiari buruz hitz egiten hasi aurretik, lehenik eta behin, gure harridura adierazi nahi dugu, gaur, ez ohiko plenoa deitzeagatik. Batetik, oposizioarekin kontsultatu gabe deitu da ez ohiko udalbatza hau eta bestetik, ez ohiko ordu batean.

“Hurrengo astean, ostegunean, gai hau ohiko udalbatzarrera zetorrenean ez dugu ulertzen zer dela eta, gaur deitzen den udalbatza hau, baina, bueno, hartzen dugu, hau, beste gai honekin egiten ari den



Andoingo Udala

## Akta:Osoko Udalbatza

APARTEKO BILKURA: 2022/07/12

## Acta: Pleno Municipal

SESIÓN EXTRAORDINARIA: 12/07/2022

kudeaketa txarraren beste adibide bat bezala. Zeren, guk esaten dugun bezala, ez dugu ulertzen, inondik inora, gaur ez ohiko udalbatza bat deitzea hurrengo astean gaia hau jorratu daitenean.

“Gaiaren mamian sartuta, hitzarmenaren zirriborroa aurkeztu zenutenetik, guk, gai berdinarekin gabiltza edo kontu berdinarekin gabiltza bueltaka, hau da, bizilagunak informatzearekin eta gainera, azkenengo udalbatzan bizilagunek argi utzi zuten ez dutela informazioa jaso, ez dutela informazio nahikorik jaso eta, besteak beste, horregatik atzeratu zen hurrengo udalbatzarrerera gaia bertan eztabaidatzeko. Tartean, pasa den asteazkenean, bilera bat egin zen auzotarrekin eta, argi ikusi zen bilera horretan, gauzak ez daudela inondik inora argi eta bilera askoz gehiago egin behar direla bertako bizilagunek ez dakitelako zer gertatuko den beraien etxebizitzekin. Orduan, guk, uste dugu askoz bilera gehiago eta informazio gehiago eduki behar dutela bizilagunek, beraiek jakin behar dutelako azkenean bere etxebizitzarekin zer gertatuko den.

“Adibide bezala, ikusten dugu kasuistika desberdinak daude. Daude bertan bizi diren pertsonak jabegoan, jabegoan eduki eta alokairuan daudenak, kasuistika horiekin, gure ustez bilera egin beharko litzateke, zeren, lau edo bost kasuistika horien barruan daude kasuistika desberdinak, baina, badaude multzo batzuk eta, multzo bakoitzarekin bilerak egin beharko liratekeela uste dugu.

“Bestetik, Verdasco jaunak aipatu du, hitzarmen honetan udalak bai Agirialaiko eta Ama Kandidako %15eko aprobetxamendua lagatzen dio edo Jaurlaritzari, ondo legoke baita ere, horiek zifretara ekartzea, zeren, %15eko portzentajea ondo egon daiteke baina ez badugu zifretara eramaten azkenean ez dakigu zer den ematen ari garena. Gai horri buruzko txostenak ere faltan bota ditugu.

“Berriro diogu, gai honekin ematen ari den prozedura oso, oso txarra da. Gauzak ondo egingo balira gaur aukera zegoen aho batez eta bizilagunekin batera aurrera eramateko, baina, gauzak ez direnez behar bezala egin, gai honek, bereziki eskatzen du sukaldeko lana, sukaldeko lana handia eta gauzak ez direnez ondo egin ba, uste dugu udal gobernuaren aldeko bozkarekin bakarrik aurrera eramango da eta, horrelako egitasmo bat, bizilagun asko kontra izanda hastea ez du zentzurik. Ez du zentzurik horrelako proiektu bat herriaren etorkizunean dagoen proiektu garrantzitsuenetako bat hastea bizilagunak, bertako lurzorua %55 jabeak direnak, bertako gehienak, kontra edukita ez du inongo zentzurik.

“Guk ez dugu bozkatuko ezezkoa hitzarmenaren filosofiarekin alde gaudelako, baina, ezin dizuegu baiezkota eman kudeaketa oso txarra egin dezutelako.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Buenas tardes. Bueno, un poco es en la línea de lo que a dicho el Sr. Alvarez pero, yo voy a manifestar lo que nosotras pensamos. Para nada, cuando se propuso en el pleno anterior atrasar la votación era para dar ese tipo de información, de hecho, queríamos que realmente se informara a los vecinos y a las vecinas que se tranquilizaran y yo creo que de esa reunión salimos todos menos tranquilos y con más dudas, eso es lo que yo pienso.

“Empezando, con que recibimos la convocatoria mediante un correo el jueves, 7 de julio, a las 13:53 horas, in extremis, y tengo que decir que cuando vi el correo recordé una lección de historia, en su tiempo, todo lo del despotismo ilustrado, todo para el pueblo sin el pueblo, me estáis demostrando lo mismo, al final estáis haciendo lo que os da la gana, sin consultar con nadie. Eso es lo que pensé cuando recibí ese correo, porque, lo primero, no han contado si se puede, no se puede, aquí hay gente que vivimos de nuestro trabajo, hacemos política municipal pero no vivimos de eso, entonces, creo que hay que contar con la gente para ver si se puede, no se puede, si viene bien o viene mal, cosa que parece ser que para lo que nos interesa no estamos acostumbrados.

“No me parece el procedimiento, por lo menos nos podían haber llamado al resto de grupos para decir, vamos a hacer esta reunión y tal, les hubiéramos contestado lo que pensamos, seguramente si nos lo hubieran dicho en persona. Entendemos una convocatoria que fuera consensuada, no impuesta unilateralmente como así ha sido.

“El despotismo ilustrado es eso. Hacer lo que nos da la gana, no consultamos, hacemos pero decimos que es lo bueno, que puede ser que sea lo bueno, que puede ser que sea lo bueno pero, desde luego no con lo de los demás.

“Pensamos que la reunión, de los vecinos y vecinas de Etxeberrieta sirvió para generarles más dudas y que no se les informó de nada, porque, aquí, lo que cada uno quería saber es como estaba su situación.

“Nosotros y nosotras hubiéramos querido, echamos de menos, un técnico del Gobierno Vasco, en el que las 4 casuísticas que puede haber las relatara, dijera, bueno, no pasa nada, el que tiene un piso y esto ... pues va a pasar esto. Aquí se les dice, lo que diga la ley, la ley de expropiación, muy bien, pero aquí no todas somos abogadas, en un momento dado, cada uno quiere saber cómo está su situación, eso es lo que quieren, no se les informó, no se les aclaro nada, no se entendió bien la reunión, lo que se queríamos con la reunión de los vecinos.

“Creemos que teniendo más de la mitad de la propiedad los vecinos, por menos habría que haberles avisado y haber mantenido con ellos, no ahora, previamente, más reuniones, ver que es lo que quieren, incluso haberles enseñado el proyecto. No se ha hecho nada. Se ha decidido por ellos y ahora se les impone el proyecto.

“Vuelvo a repetirme, estamos de acuerdo con el proyecto, con el convenio con el Gobierno Vasco, creemos que tiene que ser así, el convenio no nos parece mal, pero, desde luego, no nos parece y, lo venimos repitiendo en las distintas comisiones que, se están haciendo las cosas mal. No se puede imponer, como yo tengo mayoría, hago lo que me da la gana, no sé cómo nos irá.

“Nosotros esperábamos al menos eso, un técnico del Gobierno Vasco, alguien que les pudiera explicar, al que vive, al que no vive. También es verdad que lo mejor, yo me sentí aludida en cuanto a generar falsas esperanzas y falsas expectativas, pero sí creo que es un plan urbanístico con cierta excepcionalidad en cuanto a cómo se vive allí. Si pienso que, a lo mejor, este compromiso que tiene el ayuntamiento y este estudio socio-urbanístico se tenía que haber hecho antes y en base al resultado del mismo se negocia, se puede negociar con el Gobierno Vasco, lo pone en el convenio, se puede hacer mediante una recapitulación, se podía haber dicho, esta zona por la excepcionalidad que tiene, con el problema que se está dando, por la mala convivencia que hay, pues por lo que pasa.

“Se podía haber dado una excepcionalidad a la gente que, bien se ha tenido que ir u otro tipo de cosas.

“Vamos a entrar en lo que es la ley de expropiación, pura y dura, y todos sabemos lo que va a pasar.

“No nos parece que ha sido el procedimiento correcto. Nosotros haríamos una cronología de haber empezado a reunirnos bastante antes con los vecinos. Eso mismo que se explicó en la reunión de que hay una empresa alternativa, que no da plazo, que sí, que no, que no cumplía los plazos, todo eso se podía haber llevado de otra manera, a la vez con los vecinos y las vecinas y, entre todos haber hecho un buen trabajo que, la verdad, es una pena, es un proyecto muy bueno y se podía haber hecho un trabajo excepcional y creo que va a ser un trabajo que nadie, al final, se va a quedar con un buen sabor de boca y es por cómo se ha hecho, por cómo se va a hacer, entonces, nosotros, como ha dicho el Sr. Alvarez, tampoco podemos votar en contra de un proyecto en el que creemos, pero tampoco podemos votar a favor, por cómo se ha llevado.

“Nosotras y nosotros no vamos a poner del lado de los vecinos y las vecinas que consideramos son parte de este proceso y nos vamos a abstener.”

Berriro hartzen du hitza, Verdasco jaunak, Hirigintza, Obra, Ingurumena eta Landa Guneko Zinegotzi Ahaldunak, honakoa erantzuteko:

“Bien. Por intentar contestar a todas o parte de las cosas que se han dicho. El motivo de convocar el pleno extraordinario es que consideramos que tenemos que actuar ya en Etxeberrieta, es un ámbito que necesita de una solución, ponerlo en marcha cuanto antes y esa es la motivación de hacer este pleno extraordinario.

“Evidentemente, hay diferentes casuísticas y sensibilidades en el ámbito pero, nosotros consideramos que es necesario actuar en este ámbito y de una manera social, a través de este convenio.

“Con respecto a lo de la cuantificación de las parcelas que cede el ayuntamiento. El ayuntamiento cede íntegramente una parcela en Ama Kandida, destinada a viviendas de protección oficial y otra parcela en Agirialai también destinada a la construcción de viviendas de protección oficial, independientemente, si se hubieran hecho a través del convenio o de otra manera, el ayuntamiento tendría que haber impulsado de alguna manera el desarrollo de esas dos parcelas. Las vincula a estos ámbitos y a su vez consigue poner

marcha.

“¿Qué de la reunión la ciudadanía salió con muchas dudas? Evidente, porque esperaban unas respuestas que este convenio todavía no puede dar. Este convenio, como se ha dicho en otras ocasiones, es el punto de partida y, posteriormente, según se vaya avanzando se irán clarificando y dando toda la información que a día de hoy no disponemos, pero es necesario poner en marcha este convenio para aclarar todas esas casuísticas que se dieron en esa reunión y, es lógico, todos quieren saber cuál es su situación, pero si no ponemos en marcha este convenio no podemos avanzar para poder clarificar esas diferentes situaciones.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Eguerdi on, guk, gure aldetik esan behar dugu, asumitzen dugula egin behar zen komunikazioa, akaso ez da beharrezkoa zena izan.”

Santana andreak, erantzuten du:

“Nosotros decimos lo mismo, apostamos por lo público, hubiéramos votado a favor sin ninguna duda, pero desde luego, no podemos votarlo en estas condiciones, está claro, aquí no vivimos solos y que hay que pensar en todos, estamos en una comunidad, creo que tienen que reflexionar sobre eso.”

Alkate andreak, hartu du hitza, eta honakoa esan du:

“Lehenik eta behin, barkatu eh..., lehenik eta behin, komentatzea, bueno, voy a hacerlo en castellano, por si acaso.”

“Por la parte política no va a haber más intervenciones y viendo que hay personas en el público que quieren intervenir. Unido a las dudas que surgieron el otro día, vamos a hacer un escrito, para que aclaren, si tenemos que grabar o no grabar, si tenemos que difundir, no difundir, si tiene que ser vía streaming o no tiene que ser vía streaming esa información, pero bueno, en aras de evitar más problemas de los que ya están ocurriendo, lo dejaremos en abierto, pendientes del escrito que nos llegará. Ahora si puede intervenir. Gracias.”

Idazkari jaunak hartu du hitza eta honakoa azalpena eman du:

“Alkate andreak esan duen bezala, streaming bidez ematen da zuzenean, grabatu egiten da, streaming bidez ematen da eta ondoren sare sozialetan zabaltzen da, orduan, grabatu ahal izateko ikusleei berariazko baimena eskatu beharko da.”

“Como ha comentado la Alcaldesa, de acuerdo con la ley de protección de datos, teniendo en cuenta que se retransmite en directo por streaming, se hace una grabación y esa grabación se publica en redes sociales, para poder realizar esa grabación y difusión se requiere el consentimiento expreso de la persona que intervenga, en caso contrario no podríamos grabar y difundir esas imágenes y voz. Por cada persona que intervenga habrá que solicitar su consentimiento expreso.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzak, gehiengoz, PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

- 1.- Onartzea, hasierako izaeraz, Andoingo Hiri-Antolamendurako Plangintza Orokorraren Etxeberrieta, Ama Kandida eta Agirialai eremuetan babes sozialeko etxebizitzak sustatzeko Eusko Jaurlaritzak eta Andoingo Udalak sinatu beharreko lankidetzaz-hitzarmena.
- 2.- Hasierako onespen erabakia, aipaturiko hitzarmena eta horretarako izapidetutako espedientearen jendaurrean jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita 20 eguneko epeaz, interesdunek alegazioak aurkez ditzaten. Alegazioak aurkeztuko balira, horiek ebatziak izan beharko lirake, hitzarmena behin betiko izaeraz onartu aurretik. Aitzitik, alegaziorik ez balego, hitzarmen hau behin betiko izaeraz onartutzat emango litzateke.
- 3.- Alkateari ahalmena ematea aipatu hitzarmena eta bertan aurreikusitako helburuak lortzeko beharrezkoak diren agiri guztiak sina ditzan.

Alkate andreak, hartu du hitza berriro eta honakoa esan du:



Andoaingo Udala

**Akta:Osoko Udalbatza**  
APARTEKO BILKURA: 2022/07/12

**Acta: Pleno Municipal**  
SESIÓN EXTRAORDINARIA: 12/07/2022

“Kontuan izanik ez ohiko udalbatzarra dela bukatutzat emango dut eta agradecemos la asistencia. Mila esker.”

Eta beste aztergairik ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzaraldia, 14:13 minutu zirenean. Idazkariak batzaraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorriaz Toki Erakundeen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E. / V.B.

**Alkatea / La Alcaldesa**

**Idazkaria / El Secretario**



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU81f0f493-6095-43ad-ac13-877ac9371d65**

Dokumentu elektronikoen honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeke, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:  
**<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>**

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=00910>**